

2019AN, ERROTAZIO-INDIZEA (PAZIENTEA/OHEA) % 5,7 IGO DA EAEN

EAEko ospitaleetan, ohe kopurua % 1,5 igo da 2019an


Ohea oinarrizko baliabidea da erietxe baten egituran; haren aprobetxamenduan datza ospitalearen efizientzia.

Arreta Espezializatuko Estatistikaren 2019ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) 39 ospitalez osatutako sarea zuen (16 publiko eta 23 pribatu), guztira 7.112 oherekin. Horietatik % 72 sektore publikokoak ziren; alegia, ospitale-asistentzia gehienbat publikoa da. Ospitale motei dagokienez, oheen % 74 akutuen ospitaleetakoak ziren, % 7 egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetakoak eta % 19 erietxe psikiatrikoetakoak.

Horrek guztiak esan nahi du 1.000 biztanleko 3,2 ohe zeudela EAEn; Espainia osorik hartuta, berriz, 2,95 ohe zeuden 2019an.

Hurrengo irudian erakusten da 2011-2019 seriean zer bilakaera izan duten ospitale publikoetako oheen eta egonaldien urteko kopuruek. Ikus daitekeenez, 2011rekin alderatuta, bai egonaldien eta bai oheen kopurua murriztu egin da: egonaldien kasuan ia % 9, eta oheen kasuan, berriz, % 5ekoa izan da jaitsiera. 2018arekin alderatuta, 2019an handitu egin da ohe kopurua erietxe publikoetan.

EAEko ospitale publikoetako oheen eta egonaldien urteko kopuruaren bilakaera



Titulartasun pribatuko erietxeen kasuan, beherakada nabarmenagoa da seriean; izan ere, kontuan hartu behar da 2019an 2011. urtean baino % 15 ohe gutxiago zeudela. Egonaldiei dagokienez, jaitsiera % 7koa izan da.

EAEko ospitale pribatuetako oheen eta egonaldien urteko kopuruaren bilakaera




2019an, errotazio-indizea (pazientea/ohea) % 5,7 igo da EAEn.

Ospitaleko jardueraren eta funtzionamenduaren bilakaera baloratzeko, oso interesgarria da denbora, bolumena eta baliabideak erlazionatzen dituzten adierazle sanitarioak erabiltzea (altak, egonaldiak eta funtzionamenduan dauden oheak). Errotazio-indizeak islatzen du urtebetean zenbat paziente igarotzen diren funtzionamenduan dagoen ohe bakoitzetik; bera da adierazle onena ohe-baliabidearen produktibitatea sintetizatzen.

Ospitale publikoen eta pribatuen azken urteko (2019) batezbesteko egonaldia kontuan hartzen bada, egonaldi hori 5,5 eta 6,1 egunekoa da, hurrenez hurren. Horrenbestez, zentroaren titulartasunaren arabera kalkulatu badugu paziente batek batez beste zenbat egunez okupatzen duen ohe bat, emaitza hau lortzen dugu: zentro publiko bateko ohe bat batez beste 287 egunez dago okupatuta urtean; aldiz, titulartasun pribatuko erietxeen kasuan, ohe bat batez beste 274 egunez egon da okupatuta aztertutako azken urtean.

Hurrengo irudian ikus daiteke zer bilakaera izan duen errotazio-indizeak zentro publikoetan zein pribatuetan 2011-2019 aldirian, hau da, % 11,8ko eta % 44,8ko hazkundera izan dute, hurrenez hurren. Aztertutako azken bi urteak kontuan hartuta, ospitale publikoetan ikusten da esandako indize hori apur bat jaitsi egin dela; aldiz, ospitale pribatuetan igoera nabarmena izan du.


Txandatzeko-indizearen bilakaera, titulartasunaren arabera



2019an, % 1,7 egin du gora osasungintzako langileen kopuruak EAEn, 2018arekiko.


Osasungintzako langileen kopuruak –mediku, erizain eta osasungintzako beste langile batzuk– gorako bilakaera izan du 2000-2019 aldian, eta kopuru hori ia bikoiztu egin da azken 20 urteetan. 2018arekin alderatuta, 2019an gutxitu egin dira erizainak eta osasungintzako beste langile batzuk.

Osasungintzako langileen banaketaren bilakaera EAEn



Hurrengo irudian ikusten da gora egin dutela medikuen kopuruak eta erizainenak, 2000-2019 aldian okupatutako ohe kopuruarekiko. Azkeneko urtean, ordea, jaitsiera nabaritu da erizain kopuruan, okupatutako ohe kopuruarekin alderatuta.

Egitura-adierazleen bilakaera EAEn



2019an, % 2,6 igo ziren akutuen ospitale publikoetan artatutako kanpo-kontsultak

Akutuen ospitaleetako barneko kanpo-kontsultak ere asistentzia-jarduera gehien hazi zen eremuetako bat izan ziren. 2019an, guztira 3.488.409 milioi kontsulta erregistratu ziren esandako erietxe horietan. Ospitale barneko kanpo-kontsulta kopuruaren hazkunderik handiena Gipuzkoan gertatu zen, aurreko urtean baino % 8,9 kontsulta gehiago izan baitziren, eta ondoren Bizkaian, % 2ko igoerarekin. Aurreko urtea kontuan hartuta, esparru publikoan % 2,6ko igoera izan zen, eta esparru pribatuan ere gora egin zuten kontsulta horiek, kasu honetan, 2018an baino % 14,6 gehiago.


2019an, ospitaleratzeak % 8 igo ziren 2018arekin alderatuta; eta esan behar da, gehienbat, Gipuzkoan igo zirela: % 17,4. Zentroaren titulartasuna kontuan hartuta, esan dezakegu erietxe publikoetan ospitaleratzeak igo egin zirela baina oso gutxi (% 0,1), eta titulartasun pribatuko ospitaleetan, berriz, ospitaleratze horiek % 40,2raino igo ziren. Ospitale mota kontuan hartuta, nabarmentzekoa da egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetako ospitaleratzeak % 3,4 gutxitu zirela, 2018. urtearekin alderatuta.

2019an, 2.009.708 ospitale-egonaldi izan ziren, 2018an baino % 0,2 gehiago. Egonaldien % 72,4 ospitale publikoetan egin ziren. Akutuen ospitale publikoetako batezbesteko egonaldia 4,6 egunekoa izan zen; akutuen ospitale pribatuetakoa, berriz, 2,3 egunekoa. 2018. urtearekiko, batezbesteko egonaldia % 2,2 handitu zen akutuen zentro publikoetan, eta % 20,7 murriztu zen pribatuetan.

2019an, larrialdietako zerbitzuek 1.260.014 pertsona artatu behar izan zituzten EAEn (aurreko urtean baino 20.314 gehiago); horietatik % 77,9 erietxe publikoetan artatu ziren. 2019an, ospitaleratutako larrialdiak % 5,4 murriztu ziren ospitale pribatuetan, aurreko urtekoekin alderatuta; erietxe publikoetan, berriz, jaitsiera % 2,2koa izan zen.


2011-2019 aldiko bilakaerari dagokionez, akutuen ospitaleetako barneko kanpo-kontsulten kopuruak –1.000 biztanleko– gora egin zuen bai zentro publikoetan (% 37) bai pribatuetan (% 16), hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.

Akutuen ospitaleetako barneko kanpo-kontsulten bilakaera, titulartasunaren arabera




Ospitaleko kanpo-kontsulten kopuruak etengabe egin du gora azken hamarraldian. Horrek esan nahi du 2009an baino 998.178 kontsulta gehiago egin direla 2019an. Hala ere, igoera horrek ez du aparteko hazkunderik eragin ospitaleratzeen kopuruan (50.300). Bestalde, aldi horretan 144.656 larrialdi gehiago izan dira.

EAEko ospitaleratzeen, ospitale barneko kanpo-kontsulten eta larrialdien kopuruen bilakaera



Hurrengo irudian, mila biztanleko ospitaleratzeen eta batezbesteko egonaldiaren (egunetan) arteko erlazioa ikus daiteke. 2011-2019 aldian ospitaleratze kopuruak gora egin badu ere (% 9), batezbesteko egonaldiak, aldiz, % 17,6 laburtu dira.

1.000 biztanleko ospitaleratzeen eta ospitaleratze-egunen kopuruaren arteko erlazioaren bilakaera




2012-2019 aldian, larrialdi guztien eta ospitaleratutako larrialdien ehunekoaren arteko erlazioak alderantzizko joera izan du: larrialdiak ia % 15 igo dira, eta ospitaleratutako larrialdiak, berriz, % 11,2 murriztu dira.

Gutzizko larrialdi kopuruaren eta ospitaleratutako larrialdien arteko erlazioaren bilakaera



Hurrengo irudian, Kirurgia Handi Anbulatorioaren (KHA) bilakaera ikusten da, hala erietxe publikoetan, nola pribatuetan. 2011-2017 aldian, % 38,7ko igoera izan zen erietxe publikoetan eta % 2,9koa erietxe pribatuetan; 2017-2018 aldian, berriz, alderantzizko joera egon zen, hau da, % 18ko jaitsiera publikoetan eta % 10ekoa pribatuetan. Aztertutako azken urtean –2019– eta aurreko urtearekin alderatuta, ohartuko gara berriz ere gora egin duela bai sektore publikoan eta bai pribatuan: % 4,04 eta % 3,51, hurrenez hurren.


Kirurgia handi anbulatorioko (KHA) ebakuntza kopuruaren bilakaera, titulartasunaren arabera



Batezbesteko egonaldiak honako hau neurtzen du: antolamendu-unitate batek ospitaleratze-gertaerak konpontzeko behar duen batezbesteko denbora. Pazienteen ospitaleko egonaldia islatzen du. Zerbitzuen prestazioaren eta ohe-baliabidearen erabileraren efizientzia adierazten du.

2011-2019 aldian, akutuen ospitaleetako batezbesteko egonaldiak (egun kopuruak) joera egonkorra izan du. Hala ere, ikusten da erietxe publikoetako egonaldia apur bat laburtu dela, izan ere, 2011n 5,1 egunekoa izatetik 2019an 4,6 egunekoa izatera pasatu baita. Erietxe pribatuei dagokienez, 3 egunetik 2,3ra igaro da 2019an.

Batez besteko egonaldiaren bilakaera akutuen ospitaleetan, titulartasunaren arabera



Gipuzkoan erditzeen kopurua % 5,7 jaitsi da

Erditzeen kopuruak behera egiten jarraitzen du, eta beherakada hori sektore publikoan zein pribatuan jazo da, eta, ondorioz, ugalkortasun- eta jaiotza-tasek behera egin dute.

2019an ia % 4 jaitsi zen erditzeen guztizko kopurua 2018arekin alderatuta. Lurralde historikoen arabera, behera egin zuen hiruretan: % 2,4 Bizkaian, ia % 4 Araban eta % 5,7 Gipuzkoan. Erditzeen % 87 erietxe publikoetan artatu ziren. Zesarea kopuruak % 1,4 egin zuen behera 2019an ehun erditzeko, 2018arekin alderatuta.

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, 2011-2019 aldian 100 erditzeko zesareen indizea askoz txikiagoa izan zen ospitale publikoetan ospitale pribatuetan baino. Hala ere, nabarmentzekoa da 2019an, ospitale pribatuetan, % 9ko jaitsiera izan zutela, 2018ko datuekin alderatuta.


Zesareen indizearen bilakaera ehun erditzeko, titulartasunaren arabera



2019an, nekropsien indizea, hildako 1.000 pertsonako 36,4koa izan zen EAEn; hau da, 2018arekin alderatuta,% 2,9ko jaitsiera izan zen.

Irudian 2011-2019 aldiko bilakaera ikus dezakegu.

Hildako mila pertsonako nekropsien indizearen bilakaera,
titulartasunaren arabera




Inbertsio-gastua % 8,4 handitu zen EAEn, azkeneko urtean

2019. urtean, inbertsio-gastua 89,27 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2018ko inbertsio-gastua baino % 8,4 handiagoa. Ospitaleko gastu osoa 2.850 milioi eurokoa izan zen, eta horietatik % 97 ohiko gastuei zegozkien, eta % 3 inbertsioei.

Ospitaleetako jarduera EAEko barne-produktu gordinaren % 4 izan zen. Biztanle bakoitzeko gastua 1.299 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 5,2 handiagoa; espainiar estatuan, berriz, biztanle bakoitzeko gastua 1.064 eurokoa izan zen 2019an.

2000-2019 aldiko bilakaerari dagokionez, EAEko biztanle bakoitzeko gastua 2000. urtean 510 eurokoa izatetik 2019. urtean 1.299 eurokoa izatera igaro da, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.

Biztanleko gastuaren bilakaera EAEn



2011-2019 aldirian langile-gastuak joera egonkorra izan du gastu osoaren ehunekoarekiko, gastu osoaren % 60 baino gehiago langile-gastura bideratu baita.

1. taula. EAeko Arreta Espezializatuko zifra ekonomiko nagusien bilakaera. 2018-2019.

Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)	2018			2019			% lgoera		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Gastu arruntak	2.615.066	2.281.082	333.985	2.761.441	2.406.140	355.301	5,6	5,5	6,4
Inbertsioa	82.367	75.459	6.908	89.276	68.875	20.400	8,4	-8,7	195,3
Guztizko gastua	2.697.433	2.356.541	340.893	2.850.717	2.475.015	375.701	5,7	5,0	10,2
Guztizko sarrera	2.988.782	2.672.238	316.544	3.147.508	2.818.660	328.848	5,3	5,5	3,9

Iturria: Arreta Espezializatuko Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

2. taula. EAEko Arreta Espezializatuko zifra nagusien bilakaera. 2018-2019.

		Guztira			Publikoak			Pribatuak		
		Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzeak	Psikiatrikoak
Baliabideak										
Oheak	2018	5.127	489	1394	4.132	350	506	996	189	888
	2019	5.243	497	1372	4.246	360	492	997	187	880
	% Igoera	2,3	1,6	-1,6	2,8	2,9	-2,8	0,2	-1,4	-0,9
Laguntza-jarduera										
Sarrerak	2018	318.513	8.677	2.604	256.037	7.315	1580	62.476	1361	1024
	2019	345.176	8.379	2.655	266.805	6.880	1605	88.371	1.499	1050
	% Igoera	8,4	-3,4	2,0	0,3	-6,0	1,6	41,4	10,1	2,5
Egonaldiak	2018	1355.228	157.408	492.582	1164.440	113.644	178.482	190.788	43.764	314.100
	2019	1377.078	151.229	481.401	1173.615	108.415	173.419	203.463	42.814	307.962
	% Igoera	1,6	-3,9	-2,3	0,8	-4,6	-2,8	6,6	-2,2	-1,9
Aitak	2018	320.885	8.847	2.787	256.041	7.318	1596	64.844	1529	1191
	2019	344.862	8.390	2.743	257.173	6.877	1608	87.689	1513	1135
	% Igoera	7,5	-5,2	-1,6	0,4	-6,0	0,8	35,2	-1,0	-4,7
Ospitale barneko kanpo-kontsultak	2018	3.343.179	36.886	54.811	2.866.606	18.197	5.788	476.573	22.689	48.393
	2019	3.488.409	36.790	47.970	2.942.451	13.646	2.931	545.958	23.144	45.039
	% Igoera	4,3	2,5	-11,5	2,6	3,4	-49,4	14,6	2,0	-6,9
Larrialdiak	2018	1232.454	6.675	571	959.952	6.675	-	272.502	-	571
	2019	1252.810	6.330	874	975.252	6.330	-	277.558	-	874
	% Igoera	1,7	-5,2	53,1	1,6	-5,2	-	1,9	-	53,1
Ebaketak	2018	301731	-	-	225.444	-	-	76.287	-	-
	2019	295.007	-	-	221.988	-	-	73.019	-	-
	% Igoera	-2,2	-	-	-1,5	-	-	-4,3	-	-
Erditzeak	2018	16.292	-	-	11.055	-	-	2.237	-	-
	2019	16.677	-	-	13.711	-	-	1.966	-	-
	% Igoera	3,8	-	-	24,4	-	-	-12,1	-	-
Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)										
Guztizko gastua	2018	2.462.575	80.737	154.122	2.181.538	66.609	108.394	281.037	14.128	45.727
	2019	2.611.501	78.372	160.844	2.296.330	63.424	113.261	313.171	14.948	47.583
	% Igoera	6,0	-2,9	4,4	5,4	-4,8	4,5	11,4	5,8	4,1
Gastu arruntak	2018	2.392.915	70.769	151.882	2.116.742	56.717	107.622	276.173	14.052	43.759
	2019	2.530.307	74.104	157.030	2.234.627	59.202	112.311	295.681	14.902	44.719
	% Igoera	5,7	4,7	3,7	5,6	4,4	4,4	7,1	6,0	2,2
Inbertsioa	2018	69.659	9.967	2.740	64.795	9.892	772	4.864	76	1.968
	2019	81.933	4.268	3.814	63.703	4.222	950	17.400	46	2.864
	% Igoera	18,6	-57,2	39,2	-1,7	-57,3	23,1	259,6	-39,5	45,5
Adierazleak										
Betetze-indizea (%)	2018	72,4	88,2	96,8	77,2	89,0	96,6	52,5	86,3	96,9
	2019	72,0	83,4	96,1	75,7	82,5	96,6	55,9	85,6	95,9
	% Igoera	-0,6	-5,4	-0,7	-1,9	-7,3	0,0	6,5	-0,8	-1,0
Batez besteko egonaldia (egunak)	2018	4,2	17,8	176,7	4,5	15,5	111,8	2,9	28,6	263,7
	2019	4,0	18,0	175,5	4,6	15,8	107,8	2,3	28,3	271,3
	% Igoera	-4,8	1,1	-0,7	2,2	1,9	-3,6	-20,7	-1,0	2,9
Txandakatze-indizea (paz./ohe)	2018	62,6	18,1	2,0	62,0	20,9	3,2	65,2	11,0	13
	2019	65,8	15,9	2,0	60,6	19,1	3,3	88,0	11,0	13
	% Igoera	5,1	-6,6	0,0	-2,3	-8,6	3,1	35,0	0,0	0,0
Hilkortasun gordinaren indizea (%)	2018	2,5	27,7	17	2,7	26,1	0,6	19	35,6	3,2
	2019	2,5	29,0	16	2,7	27,6	0,6	17	35,5	2,9
	% Igoera	0,0	4,7	-5,9	0,0	5,7	0,0	-10,5	-0,3	-9,4
Nekropsia-indizea (%)	2018	49,1	-	-	56,2	-	-	9,0	-	-
	2019	47,0	-	-	54,3	-	-	13,4	-	-
	% Igoera	-4,3	-	-	-3,4	-	-	48,9	-	-
Zesarea-indizea (%)	2018	14,6	-	-	13,4	-	-	22,1	-	-
	2019	14,4	-	-	13,6	-	-	20,0	-	-
	% Igoera	-1,4	-	-	1,5	-	-	-9,5	-	-
Larrialdietako presioa (%)	2018	48,3	54,2	8,0	54,3	64,2	0,4	23,7	-	19,8
	2019	46,4	51,6	10,5	54,1	62,8	0,6	24,1	-	25,6
	% Igoera	-3,9	-4,8	31,3	-0,4	-2,2	50,0	1,7	-	29,3
Ospitaleratzeak eragiten dituzten larrialdiak (%)	2018	118	60,0	35,6	13,5	65,0	-	5,6	-	35,6
	2019	115	64,1	30,8	13,3	64,1	-	5,2	-	30,8
	% Igoera	-2,5	14,4	-13,5	-1,5	-1,4	-	-7,1	-	-13,5

Iturria: Arreta Espezializatuko Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Ohar metodologikoak:

- 2013az geroztik ospitale publikoetako informazioa Osakidetzako antolakuntza nagusiko informazio-zerbitzuetatik etortzen da. Aurrez, informazio hori ospitaleetatik zuzenean jasotzen zen.
- Sektore publikoko jarduera ekonomikoari dagokionez, 2013az geroztik ordura arte kontuan hartzen ez ziren bi partida sartzen hasi ziren: amortizazioan dagoen gastuari buruzkoa (sarrerren kontuan duen kontrapartidarekin) eta Osakidetzaren inbertsio estrategikoei buruzkoa.
- 2015etik aurrera, Osakidetzaren Eibarko ospitale berriaren inbertsioa sartu zen.
- Giza baliabideei, baliabide fisikoei, arreta-jarduerari eta jarduera ekonomikoari buruz ospitale-estatistikan txertatutako datuak arreta espezializatuari dagozkio.
- 2017tik aurrera, Alfredo Espinosa ospitalea - Urduliz (Osakidetza) sartu da estatistikan
- 2017tik aurrera, 704. kontuan —Estatuko Osasun Sistemako erakunde edo organismoekin itundutakoak (Osakidetza)—, lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko jarduera sartzen da.
- 2019an, Quirón Donostia eguneko ospitalearen jarduera sartu da.